

## IKASGAIAREN IRAKASKUNTZA-GIDA

<b>Titulua:</b> ERIZAINZAKO GRADUA	<b>Mota:</b> Oinarrizko Zientziak
<b>Ikasgaia:</b> Osasun-zainketei aplikatutako Zientzia Psikosozialak	<b>Eskolen kronograma:</b> 2. lauhilekoa
<b>Kodea:</b> 26441	<b>Hizkuntza:</b> Euskara/Gaztelania
<b>Ikasgaiaren deskribapena eta testuingurua</b>  Irakasgai honek lagundu egiten dio ikasleari zainketa integralaren oinarri psikosozialak ulertzen. Sozializazio-prozesua. Garapen psikosoziala eta bizi-zikloa. Pertsonen osasunaren eta gaixotasunaren faktore psikosozialak.	<b>ECTS kredituak:</b> 6
<b>Sartzeko eskakizunak/gomendioak</b>  Bat ere ez.	<b>Kurtsoa:</b> 1. maila

IRAKASLEAK	Tel.	Helbide elektronikoa
<b>Irakasgaiaren arduraduna</b>  Eva Pereda Pereda	945 219001	<a href="mailto:eva.pereda@ehu.eus">eva.pereda@ehu.eus</a> <a href="mailto:eva.peredapereda@osakidetza.eus">eva.peredapereda@osakidetza.eus</a>
<b>Euskara lerroko irakasleak</b>  Eva Pereda Pereda Juan Elizondo Pérez de Albéniz	945 219001	<a href="mailto:eva.pereda@ehu.eus">eva.pereda@ehu.eus</a> <a href="mailto:juan.elizondoperezdealbeniz@osakidetza.eus">juan.elizondoperezdealbeniz@osakidetza.eus</a>

## GAITASUN ESPEZIFIKOAK

- G1. Giza portaera azaltzen duten marko esplikatibo psikologikoak identifikatzea.
- G2. Portaeraren oinarri biologikoak eta oinarrizko prozesu psikologikoak azaltzea.
- G3. Hainbat kulturatako pertsona osasuntsuek bizi zikloan duten garapenaren sekuentzia aztertzea.
- G4. Bizi krisi egoeretan erantzun psikosozialak balioztatzea.

## ZEHARKAKO GAITASUNA

ZG. TALDE LANA: talde laneko gaitasunak helburu komunak lortzeko jarrera pertsonala eta besteekiko lankidetzara eskatzen du, non informazioa trukutzen, erantzukizunak hartzen, sortutako zailtasunak konpontzen, eta taldearen hobekuntza eta garapenerako ekarpenak egiten diren.

## IKASKUNTZAREN EMAITZAK

- IE1. Oinarrizko prozesu psikologikoei, giza portaerari eta pertsonen garapen ebolutiboari buruzko ezagutza adierazten du.
- IE2. Gizabanakoa osatzen duten dimentsio ezberdinak deskribatzen ditu.
- IE3. Garapenaldi bakoitzeko behar psikosozialak identifikatzen ditu bai gizabanako mailan bai familia mailan.
- IE4. Pertsonaren egokitzapen baliabideak identifikatzen ditu galera- eta/edo gaixotasun-egoeretan.
- IE5. Jokabide desegokitzailleak aldatzera bideratutako programa bat garatzen du.
- IE6. Jarduera hezigarriak aurrera eramateko eta helburu komunei begirako gaitasuna adierazten du errespetuan oinarritutako lan giroa bermatuz.

## EDUKIAK

### Atal teorikoa

#### I. UNITATEA: ZIENTZIA PSIKOSOZIALEN HASTAPENAK

- 1.1 Gizakion jokabidea azaltzen duten azalpen-esparru psikologikoak.

#### II. UNITATEA: OINARRIZKO PROZESU PSIKOLOGIKOAK

- 2.1 Kontzientzia, arreta eta pertzepzioa, pentsamendua eta hizkuntza, oroimena, afektibitatea.
- 2.2 Ikaskuntza eta jokabidea.

#### III. UNITATEA: GARAPEN PSIKOSOZIALA ETA BIZI-ZIKLOA

- 3.1 Pertsonaren bizi zikloa.
- 3.2 Familia-sistemak.
- 3.3 Pertsona eta taldeak.

#### IV. UNITATEA: ZAINKETEN ALDERDI PSIKOSOZIALAK

- 4.1 Gaixotasuna, krisi-egoera.
- 4.2 Dolua.

### Atal praktikoa

#### Mintegiak

- 1. Normaltasuna eta anormaltasuna.
- 2. Egozte prozesuak.
- 3. Gatazka-konponketa.
- 4. Profil pertsonala.
- 5. Profil sozialsia.
- 6. Jokabidearen aldaketa funtzionala.
- 7. Erizainaren esku-hartzea.
- 8. Aurkezpenak.

GAI UNITATEA	IRAKASLEAK	KLASE MAGISTRALEN ORDUAK	MINTEGI-ORDUAK
2, 4	Eva Pereda Pereda	12	10
1,2,3	Juan Elizondo Pérez de Albéniz	32	6
GUZTIRA		<b>44</b>	<b>16</b>

## METODOLOGIA

Azaldutako gaitasunak garatzeko asmoz, ezagutza irakasle-taldearen eta ikasleen artean ezarritako elkarrizketa-prozesuen bidez eraikiko da. Lan metodologia horrek ikaskuntzarekiko konpromiso garrantzitsua eskatzen du, baita parte-hartze handia ere. Honela egingo da:

- **Klase magistralak:** irakasleak ikasgelan gako-ideia batzuei helduko die, eta ikasleak horiez gogoeta egin beharko du eta beste ikasle batzuekin lankidetzan aritu.
- **Mintegiak:** irakasleak gidatuko ditu, ezagutza esanguratsua eta berdinen arteko elkarlana sustatuz.

LAN PRESENTZIALA (ORDUAK 60)		
Klase magistrala	Mintegia	Laborategiko praktikak / Tailerra
44	16	0

LAN EZ-PRESENTZIALA (ORDUAK 90)		
Gidatutako lana	Bakarkako lana	Talde-lana
8	32	50

GUZTIRA	
ECTS	6
ORDUAK	150

## EBALUAZIO-SISTEMA

### OHIKO DEIALDIA: EBALUAZIO JARRAITUKO SISTEMA

Parte-hartzean oinarritutako ikasgaia denez, ebaluazio jarraitua egingo da. Horrek esan nahi du, bada, mintegi eta ebaluazio gisa zehaztutako orduetara joatea ezinbestekoa dela. Ikasleak eskoletara joaterik ez badu, irakasleari jakinarazi beharko dio, irakasleak ebaluazio jarraituko irizpideak beste egoera horretara egokitu ditzan.

Kalifikazioa guztira gainditzeko, ezinbestekoa da gaitasunak ebaluatzen erabilitako proba bakoitzaren guztizkoaren % 50 gutxienez lortzea.

Ebaluazio jarraituan atazak egiteko eta puntua dezaketen lanak entregatzeko datak ikasgaiaren kronograman zehaztuko dira. Aipatutako kronograma ikasleei helaraziko zaie ikasturtearen hasieran.

Ebaluazio jarraituko sistemak honako jarduera hauek ditu:

- Garatzeko idatzizko probak (azterketak) % 50
- Jokabidea aldatzeko lana % 40
- Talde-lana % 10

Taula honetan laburbiltzen da gaitasunen, ikaskuntzaren emaitzen, jardueren eta ebaluazio-sistemaren arteko erlazioa:

GAITASUNAK	IKASKUNTZAREN EMAITZAK	JARDUERA	EBALUAZIOA	AZKEN KALIFIKAZIOAREN %
G1, G2	IE1, IE2, IE4	Klase magistralak Ariketak	Idatzizko azterketa: galdera laburrak / testa	% 30
G2, ZG	IE5, IE6	Klase magistralak Ariketak	Lan idatzia	% 40 + % 10 ZG
G3	IE1, IE2, IE3	Klase magistralak Kasuen azterketa Ariketak	Idatzizko azterketa: galdera laburrak / testak	% 20

### **EBALUAZIO JARRAITUARI UKO EGITEA**

Ebaluazio jarraituko sisteman parte hartu duten eta azken ebaluazioko sistemaren bidez ebaluatuak izan nahi duten ikasleek idatziz adierazi beharko diote ikasgaiaren irakasle arduradunari ebaluazio jarraituari uko egiten diotela. Horretarako, 9 asteko epea izango dute ikasgaiaren hasieratik zenbatzen hasita, zentroko egutegi akademikoaren arabera, 2017ko martxoaren 13ko EHAA n argitaratutako ebaluazio-sistemaren 8. artikuluan jasotakoari jarraikiz.

### **OHIKO DEIALDIA: AZKEN EBALUAZIOKO SISTEMA**

Azken ebaluazioa ebaluazio jarraituaren salbuespena da ebaluazio jarraitua egin ezin duten ikasleentzat. Justifikatutako arrazoiak direla eta ebaluazio jarraituko sisteman parte hartu ezin duten ikasleek amaierako proba bakarria eskatu ahaliko dute, zeinak ikasgaiaren notaren % 100 balioko duen. Hauek dira justifikatutako arrazoi horiek: lan-arrazoiak, genero-indarkeriaren biktimak, erditzea, adopzioa, harrera edo 3 urtetik beherako seme-alabak norbere ardurapean izatea, mendekotasuna duen senidea zaintzea, ikasleak % 33ko ezintasuna edo handiagoa izatea, goi-mailako kirolaria izatea, bidaiatzea edo dedikazio handia eskatzen duten jarduera artistikoetan/kulturaletan aritzea, beste goi-mailako ikasketa batzuekin bateratzea, kargu politikoekin bateratzea, jarduera sindikalak izatea, ikasleen ordezkarietan aritzea, GKEak edo beste batzuk.

Azken ebaluazioko sisteman, ikasleek ebaluazio-jarduera hauen bidez frogatu beharko dute zer gaitasun lortu duten:

- *IDATZIZKO AZTERKETA % 100*

Taula honetan laburbiltzen da gaitasunen, ikaskuntzaren emaitzen, jardueren eta ebaluazio-sistemaren arteko erlazioa:

GAITASUNAK	IKASKUNTZAREN EMAITZAK	JARDUERA	EBALUAZIOA	% KALIFIKAZIO GLOBALA
G1, G2, G3, G4, ZG	IE1, IE2, IE3, IE4, IE5, IE6	Amaierako proba	Idatzizko azterketa: galdera laburrak / testa / kasu bat ebaztea	% 100

Azken azterketara edo probetara ez aurkezteak «*Ez aurkeztua*» kalifikazioa ekarriko du ikasgaiari.

### **EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKOA**

Ohiko deialdian irakasgaia gainditzen ez duten ikasleek aukeratu duten ebaluazio-sistema edozein dela ere, eskubidea izango dute ezohiko deialdiaren azken ebaluazioko proba osatzen duten azterketetara eta ebaluazio-jardueretara aurkezteko.

Halakoetan, jarduteko hainbat aukera daude:

1. Ezohiko deialdian ikasgaiaren ebaluazioa azken ebaluazioko sistemaren bidez soilik egingo da.
2. Ezohiko deialdiaren azken ebaluazioko probak barne hartuko ditu zehaztutako ikaskuntzaren emaitzak ebaluatu eta neurtzeko behar diren azterketa eta ebaluazio-jarduera guztiak, ohiko deialdian ebaluatu ziren modu berean. Ikasturtean zehar ikasleek lortutako emaitza positiboak gorde ahalko dira. Ikasturtean zehar egindako ebaluazio jarraituaren bidez emaitza negatiboak lortu badira, emaitza horiek ezingo dira gorde ezohiko deialdirako, eta ezohiko deialdiko azterketak edo probak kalifikazioaren % 100 balioko du.
3. Ohiko deialdian zehaztutakoa ezohiko deialdian ere beteko da. Ohiko deialdian gainditu diren gaitasunen nota gordeko da.

Ezohiko deialdiaren azken azterketara edo probetara ez aurkezteak «*Ez aurkeztua*» kalifikazioa ekarriko du ikasgaiari.

## INFORMAZIO-ITURRIAK

### Oinarrizko bibliografia:

- \* Díaz D, Latorre JM, Leal C, Saldivia S. Psicología para enfermería y ciencias de la salud. Madrid: Elsevier; 2023.
- \* Niven N. Psicología en enfermería. Mexiko: Ed. Manual Moderno SA; 2006.
- \* Novel G, Lluch MT, Miguel MD. Enfermería Psicosocial y Salud Mental. Bartzelona: Masson; 2005.
- \* Tazón P, Aseguinolaza L, García-Campayo J. Ciencias psicosociales. Bartzelona: Masson, S.A.; 2004.

### Sakontzeko bibliografia:

- \* Domjan M, Burkhard B. Ikaskuntza eta Jokabide Mekanismoak. Bilbo: UPV/EHUko argitalpen zerbitzua; 1994.
- \* Nieto J, Esteban M, Tejerina M. Psicología para ciencias de la salud: estudio del comportamiento humano ante la enfermedad. Madrid: McGraw-Hill Interamericana; 2004.
- \* Quicios MP, Giménez S, Barbas A, Huesca A, González JL. Pedagogía de la socialización. Madrid: Síntesis; 2019.
- \* Zupiria X. Osasun-profesionalaren eta gaixoaren arteko harremana. Bilbo: UPV/EHUko argitalpen zerbitzua; 2000. Eskuragarri: <http://www.ehu.eus/xabier.zupiria/liburuak/harremana.htm>
- \* Zupiria X. Psikologiako gaiak osasun-profesionalentzat. Bilbo: UPV/EHUko argitalpen zerbitzua; 2010. Eskuragarri: <http://www.ehu.eus/xabier.zupiria/liburua/azala.html>

### Beste baliabide batzuk:

Helbide elektroniko interesgarriak

- \* Asociación Española de Enfermería de Salud Mental (<https://www.aeesme.org/>)
- \* Bibliopsiquis. Revistas de psiquiatría – VOL (<https://psiquiatria.com/bibliopsiquis/>)
- \* EUFAMI (European Federation of Associations of Families of People with Mental Illness) (<https://eufami.org/>)
- \* GAMIAN-Europe (Global Alliance of Mental Illness Advocacy Networks-Europe) (<https://www.gamian.eu/>)
- \* Horatio: European Psychiatric Nurses (<https://www.horatio-eu.com/>)
- \* International Society of Psychiatric-Mental Health Nurses (<https://www.ispn-psych.org/>)
- \* Mental Health Europe (MHE) (<https://www.mhe-sme.org/>)

Gaiari lotutako aldizkariak

- \* Atención Primaria (<https://www.elsevier.es/es-revista-atencion-primaria-27>)
- \* Enfermería Clínica (<https://www.elsevier.es/es-revista-enfermeria-clinica-35>)
- \* Gaceta Sanitaria (<https://www.gacetasanitaria.org/>)
- \* International Journal of Mental Health Nursing (<https://onlinelibrary.wiley.com/journal/14470349>)
- \* Issues in Mental Health Nursing (<https://www.tandfonline.com/journals/imhn20>)
- \* Journal of Family Nursing (<https://journals.sagepub.com/home/jfn>)
- \* Journal of Psychosocial Nursing and Mental Health Services (<https://journals.healio.com/journal/jpn>)
- \* Revista CuidArte (<http://www.revistas.unam.mx/index.php/cuidarte>)
- \* Revista Latino-Americana de Enfermagem (<http://rlae.eerp.usp.br/>)

Pelikula interesgarriak

- \* «Éramos pocos» laburmetraia.
- \* El bola.

## OHARRAK

Ikastaroaren hasieran ikasleen eskura jarriko dira eGelan irakasgaiarekin lotutako hainbat dokumentu.

## TUTORETZAK

Irakasgaiko irakasleekin tutoretza saioak eskatzeko mezu elektronikoko bat bidali behar zaio irakasgaiaren arduradunari [eva.pereda@ehu.eus](mailto:eva.pereda@ehu.eus). Edonola ere, tutoretzak 3-4 ikasleko taldeetan eskatzen saiatuko dira ikasleak. Tutoretza saioen xedea ez da klase magistralak ordezkatzea.